# AHOLKU-BATZORDEAREN BILERA
# REUNIÓN DEL COMITÉ ASESOR
# (Coronavirus Covid-19)

**2020-03-14 Lehendakaritza 14-03-2020**

**Lehendakariaren hitzaldia-Intervención del Lehendakari**

Egun on.

Gaur “Larrialdiari Aurregiteko Bidea” Planaren Aholku Batzordea aktibatu dugu. Aholku batzordea honako hauek osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzaren Osasun, Segurtasun eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailek;
- hiru Foru-aldundiek;
- Eudel; eta
- Espainiako Gobernuak Euskadin duen ordezkaria.

**Gaurko bileraren helburua egoera aztertzea eta Koronabirusari eusteko neurri berriak adostea izan da.**

Lehenik eta behin, egiaztatu dugu positiboen igoera. Horrek eraman gaitu euste-neurriak indartzera. Osasun Sailak **AGINDU bat sinatu du gaur,** koronabirusa geldiarazteko hartu diren osasun publikoko neurri berriak zehazteko. Agindu horren arabera, "**neurri gehigarri gehiago hartu behar dira,** biztanleriaren osasunerako berehalako eta ezohiko arriskuak bere horretan jarraitzen baitu".

**Euskadi OSORAKO prebentzio-neurriak zehazten ditut:**

**BAT** – Adinekoentzako eguneko zentroak ixtea.

**BI –** Adinekoen zentro publikoetan edo pribatuetan bisita guztiak kentzea. Zentro bakoitzaren esku geratzen da, behar izanez gero, salbuespenak baloratzea. Bisitariaren tenperatura hartu beharko da zentroaren sarreran bertan, eta 37º-tik gorakoei sarrera debekatuko zaie.

**HIRU** - Edozein motatako **jarduerak bertan behera uztea:** Museo, Erakusketa-areto, Ostalaritza (etxeko zerbitzua izan ezik), Kirol instalazioak, Joko-lokal, Txoko, Elkarte gastronomiko edo Otoi egiteko zentroetan. Metro eta erdiko gutxieneko segurtasun tartea bermatzen ez duten lokaletan jarduera mugatzea. Metro eta erdiko gutxieneko distantzia hori edozein pertsona konzentrazioari aplika dakioke.

PREBENTZIO neurri horiek bihar sartuko dira indarrean, gaur bertan argitaratuko baitira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Nolanahi ere, neurri hauek **GAURTIK aurrera aplikatzea gomendatzen da.**

Neurriek 15 eguneko indarraldia izango dute, luzatzeko adosten diren erabakiak alde batera utzi gabe.

Eusko Jaurlaritzak herritarrei jakinarazten die garrantzitsua dela Osasun Sailaren Agindu hau **zorrotz eta eraginkortasunez betetzea.** Ezinbestekoa da koronabirusaren hedapenari eusteko eta biztanleriaren osasuna zaintzeko.

Eusko Jaurlaritzak herritar guztiei etengabeko informazioa eskaintzen jarraituko du. Neurri guztiak osasun publikoko irizpide tekniko eta profesional zorrotzetan oinarrituta daude. Eusko Jaurlaritzaren iturri ofizialen bidez soilik informatzeko eskatzen diegu herritarrei, baita komunikabideen bidez ere. Komunikabideei neurri berri hauek ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen diegu.

Jakin badakigu herritarrei eskatzen ari garen ahalegin handia. **Eskertzen dugu gizarteak erakusten ari den erantzukizuna**. Ziur gaude, denon artean, krisi egoera hau gainditzeko gai izango garela.

Herritar guztiek arau hauek betetzeak **egoera geldiarazten lagunduko du**, osasun-krisialdia ahalik eta lasterren gainditzeko.

Esta mañana he constituido el Comité Asesor del Plan de Protección Civil de Euskadi integrado por:
- -los Departamentos de Salud, Seguridad, Gobernanza Pública y Autogobierno;
- -las tres Diputaciones forales,
- -Eudel, y
- -el Delegado del Gobierno español en Euskadi.

**El objetivo de la reunión ha sido analizar la situación y acordar las nuevas medidas a adoptar para la contención del coronavirus.**

En primer lugar, hemos constatado que continúa el aumento paulatino de positivos en Euskadi y nuestro entorno. Esta es la razón que nos ha llevado a reforzar las medidas de contención y prevención.

El Departamento de Salud, como autoridad sanitaria, **ha firmado hoy una ORDEN en la que se detallan las nuevas medidas de salud pública adoptadas para frenar el coronavirus.** Esta Orden establece que "**existe la necesidad de adoptar nuevas medidas adicionales al persistir el riesgo inminente y extraordinario para la salud de la población".**

**Detallo las medidas preventivas para el conjunto de Euskadi.**

**UNO –** Cierre de los Centros de día para personas mayores.

**DOS –** Supresión de visitas a las personas mayores en los Centros residenciales públicos o privados. Queda a juicio de cada Centro la valoración de las excepciones en caso de necesidad. Se deberá tomar la temperatura de la persona visitante a la entrada del centro y se impedirá el acceso a quienes superen los 37ºC.

**TRES -** Cese de cualquier tipo de actividad en Museos, Salas de exposiciones, Establecimientos de hostelería (salvo servicio a domicilio), Centro de actividad deportiva, Locales de juego, Txokos, Sociedades gastronómicas o Centros de culto. Limitación de cualquier otro tipo de actividad en locales que no garanticen la distancia mínima de seguridad de un metro y medio. Esta distancia mínima es de aplicación a cualquier concentración de personas.

Estas medidas PREVENTIVAS entrarán en vigor de forma oficial mañana domingo una vez se publiquen en el Boletín Oficial del País Vasco. En todo caso, **se recomienda la aplicación de estas medidas a partir de HOY MISMO.** Tendrán una vigencia de 15 días naturales y podrán ser prorrogadas de forma sucesiva.

El Gobierno Vasco traslada a la ciudadanía la importancia del cumplimiento estricto y efectivo de esta Orden del Departamento de Salud. El cumplimiento de la misma es imprescindible para contener la expansión del coronavirus y **preservar la salud de la población, especialmente de las personas más vulnerables.**

El Gobierno Vasco seguirá ofreciendo una información permanente al conjunto de la ciudadanía. Todas las medidas están basadas en estrictos criterios técnicos y profesionales de salud pública. Solicitamos a la ciudadanía que se informe exclusivamente a través de los canales oficiales del Gobierno Vasco, así como de los medios de comunicación. Asimismo, pedimos a los medios la máxima difusión de estas medidas.

**Termino.**
Somos conscientes del esfuerzo adicional que estamos solicitando a la ciudadanía**.** **Agradecemos la responsabilidad cívica que está demostrando la sociedad vasca.** Estamos convencidos de que seremos capaces de superar esta crisis de salud pública.
El cumplimiento de estas nuevas medidas es imprescindible para contener el coronavirus y poder superar este escenario en el menor tiempo posible.

Con el **esfuerzo, disciplina y compromiso** de todas las personas y familias vamos a salir de esta situación. Vamos a conseguirlo.

Eskerrik asko!